



# LARUNBATEAN IZANGO DA III. TXAPIN FESTA

Egun osoko jaia antolatu dute herriko gazteek; aurtengoan lehen aldiz garai bateko baltsen jaitsiera egingo dute 6

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2010-05-13

VIII. URTEA 1999. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Metalgintzan lanuzteak egingo dituzte Adegiren jarrera salatzeke

**EKONOMIA** ELA eta LABen ustez Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenean patronalaren jarrera «probokatzailerak» da

**MOBILIZAZIOAK** Manifestazioa egingo dute Donostian bihar eta datozen asteetan batzarrak ere izango dira 6



A. BELAUNZARAN

**MIKEL ARTOLA** BERTSOLARIA

«Saria irabazteak jendaurrean aritzeko aukera ematen du»

**ALEGIA** 39. Osinalde Bertso Sariketa irabazi du 21 urteko alegiarrak; epaileen sariaz gain publikoarena ere eskuratu du 5

## 'Maiatza Borrokan' ekimenak aurrera jarraitzen du

**TOLOSA** Sahararen aldeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosaldea Sahararekin elkartek 7

## Kultur Astea Floren Aoizekin hasiko dute

**LIZARTZA** Hilaren 17an hasi eta 22an amaituko dira ekitaldiak; Errealeko jokalariek hilaren 18an joango dira hitzaldia eskaintzera 4

**TITULAZIO OFIZIALAK**

**ceinpro**

ERDI ETA GOI MAILAKO  
HEZIKETA ZIKLOAK  
DISEINU GRAFIKOAN

INFORMAZIOA 945 310 873

Nazioarteko Lehiaketak  
Praktikak atzerrian



Iragan astelehenean sahararren egoeraz jardun ziren Kultur Etxean. GREGORIO EIZAGIRRE

## Saharar gatazkaren inguruan dokumentalak, gaur eta bihar

**Gizartea** » 'Maiatza Borrokan' jardunaldien barruan, Kultur Etxean izango dira ikusgai; bihar afaria ere egingo dute.

**INIGO TERRADILLOS**

Fronte Polisarioaren sorreraren urtemugarekin, astelehenean, hasi ziren Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako *Maiatza Borrokan* jardunaldiak. Sahararentzat hain berezia den egun horretarako hiru lekukotza desberdin biltzen zituen hitzaldia prestatu zuten. Batetik, Ainatu Mohamed Alamin Tolosan bizi den sahararrak gerra garaian bizi izan zutenak kontaktatu zituen. Bi neska euskaldunek saharar lurralde okupatura eginiko bidaian marokoar poliziarengandik jasan zuten «etengabeko jazarpena eta presioaren» berri eman zuten, eta azkenik, Juan Sorroetak EHUKo Nazioarteko Zuzenbideko irakasleak saharar gatazka hobeto ulertzeko gakoak azaldu zituen.

Jardunaldiek gaur izango dute jarraipena, Kultur Etxean emango duten *Thaidina, musica en un desierto* ikus-entzunezkoarekin. Sa-

harar lurralde okupatuaren inguruko da, eta dokumentalaren ostean, Beatriz Maria zuzendariak hitz egingo du.

Bihar ere beste ikus-entzunezko bat izango da ikusgai, *25 minutos de Sahara* izenekoa. Kasu honetan, errefuxiatuen kanpalekue-tan, lurralde okupatuaren nahiz atzerrian bizi diren emakume sahararrak Sahararen egoeraz mintzatzeko dira. Pili Ramirez zuzendaria ere han izango da bertarantz diren galderak erantzuten.

### » EGITARAUA

#### **Maiatzak 12, gaur**

■ **19:30.** *Thaidina, musica en un desierto* (Thaidina, musika desertu batean) dokumentala, Kultur Etxean. Beatriz Maria zuzendaria ere bertan izango da.

#### **Maiatzak 13, bihar**

■ **19:30.** *25 minutos de Sahara* (25 minutu Saharaz) dokumentala, Kultur Etxean. Pili Ramirez zuzendaria ere bertan izango da.

■ **Ondoren.** Afaria Zerkausian. Saharar musikarekin eta errefuxiatuen kanpalekue-tako nahiz lurralde okupatu-tako argazkien proiektioarekin.

**Afaria eta saharar musika**  
Aldarrikapenak jai giroarekin zuzentzeko dira bihar dokumentalaren ostean egingo duten afarian. Zerkausian izango da, eta saharar musika entzuteaz gain argazkiak ere erakutsiko dituzte. Afarirako izena emateko azken eguna gaur izango da, eta 654 40 72 00 zenbakira hots eginez egin beharko da. 6 euro balio du txartelak.

### **Astelehenean hitzaldia**

Bestalde, datorren astelehenerako, hilaren 17rako, Omar Bulsan Mendebaldeko Saharan giza eskubideen arduradunaren eta Ines Miranda Aminnatou Haidarren abokatuaren hitzaldiak aurreikusita zeuden, baina lan kontuak tarteko, ezingo dute etorri. Euren orde-z, Gemma Arbesu Mendebaldeko Sahararen Aldeko Legelariaren Nazioarteko Erakunde kidea eta Sultana Jaya izango dira, 19:30etik aurrera, Kultur Etxean. Jaya Mendebaldeko Saharan jaio zen. 2007an Mendebaldeko Sahararen aldeko manifestazio baketsu batean poliziarjo zuen eta begi bat galdut zuen. Sahararren giza eskubideen aldeko defentsan jarraitu du ordutik, poliziaren errepresio gogorra jasanez.

**@ Facebook.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Facebook sare sozialean ere dagoeneko badu bere ataria. Eskualdeko egunkariaren lagun eginez gero, zuzenean jaso ahal izango dituzu zure herriko azken albiste guztiak. Gero eta lagun gehiago atxikitu dira, eta jada beste modu batera jasotzen dute informazioa lagun horiek. Bestalde, egunkariaren webgunera, [tolosaldeko-hitza.info](http://tolosaldeko-hitza.info), lotura zuzena du eta honen bitartez ere heldu zaitezke. Sar zaitetz gure sare sozialean ere.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Laburrak

### **Tolosatik Iruñerako Errege Bideaz liburua**

**GIZARTEA** » *Tolosatik Iruñerako Errege Bidea. Bainuetxe, benta eta diligentziak. Eta honen inguruan garatu zen bizitza* liburua aurkeztuko dute gaur, 20:00etan, Tolosako udal-etxeko batzar aretoan. Jose Antonio Recondo da liburuaren egilea. Aurkezpenean, egileaz gain, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Jose Luis Orella Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak hartuko dute parte.

### **Senda Viva parkera, Harizpe elkarteekin**

**AISIA** » Harizpe Jubilatuta eta Pentiodunen elkarteak egunbeteko irteera antolatu du maiatzaren 27rako. Elkarrekin kideak Nafarroako Senda Viva parkera joango dira, hain zuzen ere. Egun horretan, 08:00etan aterako dira Santa Klaratik autobusez. 2-3 orduko ibilaldi naturalistikoan egin ostean bazkaltzera joango dira Castejonera. Egunbeteko txango honetara joan nahi izanez gero, 31 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta ez bazkideek, berriz, 34. Maiatzaren 24a izango da izena emateko azken eguna, edo bestela, plaza guztiak bete arte.

### **Gurasoei zuzenduriko hitzaldia gaur, Orixen**

**HEZKUNTZA** » DBHko 1, 2 eta 3. mailako ikasleentz gurasoei zuzenduriko hitzaldia antolatu dituzte Orixe institutuan. Iragan astelehenean internet eta gizarte-sareen inguruan aritu ziren, eta gaur *Galdu al dira mugaketa arauak? Gurasoek ezetz esaten nola ikasi* gaia jorrratuko dute. Hilario Garrudo psikologo klinikoa emango du hitzaldia, eta 18:30ean hasiko da, Orixen bertan. Tolosako Udaltzaren diru laguntza jaso du hitzaldi ziklo honen.

### **Barrearen Eskolan emozioei buruzko ikastaroa**

**GIZARTEA** » Barrearen Eskolako ikastaroa antolatu du datorren astebururako, hilaren 21, 22 eta 23rako. EFT ikastaroa da liberazio emozionalen tekniken inguruko. Bertatik azaltzen dutenez, «norbere garrantzirik gabeko gorputz-arima osasunerako tenika berri eta iraultzaileak da». Javier Lorentek emango du. Hilaren 21ean hitzaldia izango da 20:00etan, eta 22an eta 23an 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara ikastaroa. Izena emateko 943 1186 69 edo 688 800 800ra deitu beharko da.

## Aurrematrikulen epea zabalik dago Udal Musika Eskolan

**Musika** » Lau urtetik gorakoentzat formazioa eskaintzen dute; hilaren 28ra bitarte egin beharko dira aurrematrikulak.

### **ERREDAKZIOA**

Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan 2010-2011 ikasturterako izena eman nahi dutenek aurrematrikula egiteko aukera dute dagoeneko. Lehen aldiz egingo duten maiatzaren 28ra bitarteko epea dute, eta lehendik Musika Eskolako ikasleak direnek, berriz, bihar izango dute azken eguna.

Bestalde, Musika Eskolako ikasle izan bai, baina, aurten instrumentua lehen aldiz hartu behar dutenek, maiatzaren 24tik 28ra bitarte egin beharko dute datorren ikasturterako aurrematrikula.

Bulegoko ordutegian egin beharko da aurrematrikula, hau da, asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik, 13:00etara.

Musika Eskolan ematen diren ikasgaiak hauek dira: akordeoia, pianoa, perkusioa, flauta, klarine-



Musika Eskolako ikasleak. HITZA

tea, oboea, saxofoia, bibolina, biola, biolontxeloa, kontrabaxua, baxu elektrikoak, tronpetak, tronboia, tronpa, bonbardinoak, tuba, txistua eta dultzaina.

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan ez dute adin-mugarik. Lau urterekin has daitezke eskolak, eta helduentzat solfeo eta instrumentuko ikasketak bereziki ematen dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Anoetan eta Villabonan uraren gaia

**ESKOLAKO AGENDA 21** ● Anoetako eta Villabonako udal ordezkariak ikastetxeetako haurrekin elkartu ziren atzokoan. Ikasleek uraren inguruan egin duten lana aurkeztu zuten bi udaletxeetako bilkura aretoetan. Gai hau ardatz hartuta, Anoetako eta Villabonako azpiegiturak, ingurunea eta abar aztertu dituzte urte guztian zehar. Ondoren, gauzak hobetzeko zer egin daitekeen pentsatu zuten eta azkenik konpromisoak hartu zituzten. Udalei ere gauza bera eskatu zieten. Ikasleez gain, irakasleek, eskoletako langileek eta gurasoek hartu dute parte Eskolako agenda 21 ekimenean. A. IMAZ/E. MAIZ

## Laburrak

### Bihar eta etzi Bonberenean 3 talde entzuteko aukera

**TOLOSA** ● Asteburu honetan hiru kontzertu egongo dira Bonberenean. Bihar, hilak 14, Cordura eta Bugatti taldeek joko dute 22:30etik aurrera. Euren lehen diskoak aurkeztuko dituzte. Etzi, hilak 15, The Sparteens talde lapurtarraren txanda izango da. Kontzertu hau ere 22:30ean hasiko da. Euskal taldearen kantuak yeye erritmoz daude hornituta, baina hainbat talde euskaldunen bertsoiak egiten dituzte. Horien artean Su ta Garnak kantak aurkitzen dira.

### 'La mujer sin piano' eskainiko dute gaur

**TOLOSA** ● Zine forumaren baitan eta jatorrizko bertsoian *La mujer sin piano* filma ikusteko aukera egongo da gaur Leidor aretoan. Lehen emanaldia 19:15ean hasiko da eta bigarrena 21:45ean. Etzi, hilak 15, *Mas alla del tiempo* jarriko dute aretoan, 19:30ean eta 22:30ean. Igande, 17:00etan *Como entrenar a tu dragon* eta 19:30ean eta 22:00etan *El concierto*. Azken film hau ikusteko aukera, astelehenean ere egongo da, 20:30ean eskainiko baitute.

### Iruñeko manifestaziora joateko autobusa

**TOLOSA** ● Galtaundi euskara taldeak bat egin du hilaren 15ean, larunbatean, Iruñean egingo den manifestazioarekin. Bertan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu dute ekimenarekin bat egiten dutenek eta Nafarroako hiriburura joateko autobusa atera du Galtaundik. Martxa 18:00etan irtengo da Golem zineen ingurutik. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustatuta egiten dute Galtaundi euskara taldeak.



Natural Project taldeko Estanis Elorza eta 'La casa de mi padre' filmaren zuzendaria, Gorka Merchan, Tolosan egon ziren atzokoan. A. IMAZ

# 'La casa de mi padre' filma doan ikusteko aukera egongo da Leidorren

**Tolosa** ● Beotibar pilotalekuan astebezte egon ziren filma grabatzen; autobus bat ere erre zuten Tolosako kaleetan.

#### ASIER IMAZ

*La casa de mi padre* filmeko zuzendariak, Gorka Merchanek, «Tolosako herriak eta Udalak emandako babesak» eskertu zuen atzokoan. Filmerako hainbat grabaketa egin zituzten Tolosan, astebete inguruko epean.

Jasotako guztia nolabait itzuli nahian, filma Leidor aretoan eskainiko dute bihar 19:30ean. Sarre-

ra doakoa izango da eta Natural Project taldearen emanaldiarekin amaituko da ekitaldia.

«Filmarekin Tolosan egon ez garenez, Donostia aldean ibili gara gehienbat, eta Espainiako zinea nola dagoen ikusita, agian inguru hauetako ikusle askok ez dute *La casa de mi padre* ikusi. Aukera hori eskaini nahi diegu ostiralean» aipatu zuen Gorka Merchan zuzendariak.

#### Garay familia

*La casa de mi padre*-ren hainbat eszena Tolosan grabatu ziren 2008. urtean. Beotibar pilotalekuan eta kalean ibili ziren besteak beste Carmelo Gomez eta Juan Jose Ba-

llesta aktoreak. Autobus bat ere erre zuten, filmak horrela eskatzen zuelako eta Donostiako alkatetxek hiriburuan egitea debekatu omen zielako, Merchanen esanetan.

Filmak Garay familiaren historia kontatzen du: «Txomin Garay (Carmelo Gomez) enpresa gizon bat da, pilotaria izandakoa. ETAK mehatxatu ondoren Argentinara joaten da. 10 urte beranduago itzultzen da, bere anaia, Koldo zinegotzi abertzalea, hil zorian aurkitzen delako. Koldok bere seme Gaizka (Juan Jose Ballesta), etorkizuneko pilotaria, kale borrokaren bidetik aldentzea eskatzen dio Txomini».

Filma ikusi ondoren zuzendariarekin hitz egiteko aukera egongo da. Gorka Merchanen esanetan, berarentzat ikusleen ikuspuntua ezagutzeko «oso garrantzitsua» da, asko ikasten baitu horrela.

#### » FITXA TEKNIKOA

#### 'La casa de mi padre'

- **Zuzendaria.** Gorka Merchan.
- **Gidoilaria.** Iñaki Mendiguren.
- **Aktoreak.** Carmelo Gomez, Emma Suarez, Veronica Echegui, Juan Jose Ballesta, Alex Angulo, Irene Bau, Aitor Beltran, Mikel Aramburu eta Iñaki Font.
- **Iraupena.** 100 minutu.

# San Isidro, baserritarren zaindariaren eguna, larunbatean ospatuko dute

**San Isidro** » Eskualdeko herri ezberdinetan, baserritar guztiak euren eguna ospatzeko aukera izango dute.

## ERREDAKZIOA

Larunbatean, San Isidro Eguna ospatu dute eskualdeko herri askotan. Egun hau, baserritarren eguna bezala ezagutzen da eta baserritarrek, urtero-urtero bezala aurten ere, ospatzeko aukera izango dute. Bakoitzak bere eran ospatu du eguna: bazkari edo afari batez, etxean, lagun artean edota lanean.

Jakina da, baserrian ez dela sekula lanik bukatzen baina larunbatean, lana alde batera utzi eta bazkari, afari, herrikirol, dantza, musika edota bertsoez gozatzeko aukera izango dute Alkiza, Amasa, Asteasu, Berastegi, Albizturren...

## Egun batez, jai

Herri gehienetan, larunbatean ospatuko dute Eguna eta guztietan, mahaia eraman bilduko dira bazkaria edota afaria egiteko. Alkizan berriz, hiru eguneko egitaraua

## » SAN ISIDRO EGUNEKO EGITARAUA

### Amasa

#### San Isidro Eguna, maiatzak 15

■ **10:30ean.** Meza Tourseko Martin Deunaren elizan.

■ **12:15ean.** Arientzako Kanpaijole Eskolako kanpaijoleak.

■ **Ondoren.** Giza Proba, Orioko Heldu taldea eta Aiztondo-Oarso taldearen artean.

■ **14:00etan.** Bazkaria Iturri Goxo jatetxean.

■ **20:30ean.** Afaria Uxo Toki Elkartearen.

■ **Egun osoan.** Zabale eta Larrañaga trikitilariak eta Lopetegui eta Larrañaga bertsolariak.

### Asteasu

#### San Isidro Eguna, maiatzak 15

■ **11:00etan.** Meza.

■ **13:00etan.** Erakustaldia probalekuan: Zaldia eta Idi pareak.

■ **14:00etan.** Bazkaria egingo dute Sarasola Sagardotegian eta Amets Arzallus eta Julio Soto ber-

prestatu dute eta haur, gazte eta helduek izango dituzte parte hartu ahal izateko ekintzak: ginkana, musa, frontenisa, afaria...

tsolariak izango dituzte lagun.

### Albiztur

#### San Isidro Eguna, maiatzak 15

■ **21:00etan.** Segoretze-berri jatetxean afaria.

### Alkiza

#### San Isidro Eguna, maiatzak 14

■ **17:00.** Ginkana proba gaztetxoen artean.

■ **Ondoren.** Txokolatada denontzat.

■ **19:30ean.** Frontenis Txapelketako 3. eta 4. posturako partidak, gizon eta emakumezkoak.

#### San Isidro Eguna, maiatzak 15

■ **16:00etan.** Kurpil lasterketa, 12 urtetik beherakozentzat.

■ **18:00etan.** Ill. Frontenis Txapelketako finalak.

■ **20:30ean.** San Isidro afaria, Ostatu Jatetxean.

#### San Isidro Eguna, maiatzak 16

■ **08:00etan.** Mendi Martxa

Herri kirolek ere, urtero bezala ez dute hutsik egingo Asteasu edota Amasan. Eta bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira.

mundiala (Gazumetik buelta) egingo dute.

■ **14:00etan.** Fronteniseko bazkari irekia Ostatu Jatetxean izango da. (Handien menuak, 15 euro eta txikien menuak 10 euro balioko du).

■ **16:30ean.** I. Banakako San Isidro Mus Txapelketa. Izena ematea: 2 euro. Sariak: txapeldunarentzat arkumea eta azpitxapeldunarentzat bi untxi.

■ **Afaria.** Ostatu Jatetxean.

### Berastegi

#### San Isidro Eguna, maiatzak 15

■ **12:45ean.** Prozesioa txistulariekin udaletxetik, San Martin elizara.

■ **13:00etan.** Meza eta ondoren, dantzariak.

■ **13:45ean.** Bazkaria Arregi Jatetxean.

■ **17:00etan.** Gazteen antzerkia eta haurren bertsoak, eskolako gimnasioan.

Urte sasoi honetan, belarra moztu eta biltzen nahikoa lan izaten badute ere, aurten eguraldiak ez die batera lagundu.

## L Laburrak

### Auzolan taldeak, ibilaldia eta hitzaldia antolatuko ditu

**ANOETA** » Larunbatean, hilak 15, Auzolan Taldeak deituta, ibilaldia eta hitzaldia izango dira. Orain arte aurrera eraman diren lanak erakutsi eta aurrerantzean egingo direnei buruz hitz egiteko asmoa du auzolan taldeak. Ibilaldia 09:00etan herriko plazatik abiatuko da eta amaiera 12:00etan izango du. Hitzaldia, 10:30ean izango da Ateaga baserriko karobian bertan eta hizlaria, Koldo Jauregi larrauldarra izango da. Karobien inguruko azalpenak emango ditu (jatorria, erabilera, berreskuratzea, etab.). Harnaiketako txiki bat ere eskainiko zaie bertara gerturazten diren guztiei.

### Ernio Gazumeri buruzko hitzaldia bihar 21:00etan

**ALKIZA** » Ernio Gazume, Kontserbazio Bereziko Eremuari lotutako babes neurrien dokumentu eta *Life + Biodibertsitatea eta pago motzak* proiektuaren aurkezpena egingo dute. Udaleko arduradunak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kideak izango dira bertan. Hilaren 14an, ostirala, 21:00etan izango da Kultur Etxean. Herriar guztiak gonbidatuta daude parte hartzera.

# «Txirrindulariei ibilbide luzea asko gustatuko zaiela uste dut; gogorra baina oso polita da»

**GARIKOITZ BIDAURRETA** » Irrintzi Txirrindulari saileko arduraduna

**Villabona** » Iganderako bi martxa antolatuko dituzte zikloturistentzat; luzea eta motza. 08:00etan emango zaio irteera.

## ENERITZ MAIZA

Garikoitz Bidaurreta, Irrintzi Txirrindulari saileko arduraduna eta Zuzendaritzako kidea da. Zikloturistentzako bi martxa prestatu dituzte eta igandean izango dira. Ostirala bitarte, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) helbidean izena emateko aukera dago. Luzeak 130 kilometro eta motzak 92 kilometro izango ditu. Villabonatik abiatu eta Leizta, Saldias, Beruete, Lekumberri, Betelu... zeharkatuko dituzte.

### Lehenengo aldia da honelako martxa antolatzen duzue?

Lehenengo aldia ere ez da. Orain dela urte batzuk ere antolatzen zen. Beste era batera zen, ibilbide bakarra eta 75 kilometro inguruko baina urte asko dira jada ez zela antolatzen.

**Orduan berriz heldu diozue lehen egiten zen lasterketari.**

Bai, hori da. Ez da lehenengo aldia antolatzen baina bai da nire lehenengo aldia. Urte honetan Zuzendaritzan sartu naiz eta zerbait gehiago egiteko asmoarekin. Eta martxa bat egiten saiatu ginen. Orain arte, Irrintzi Elkartearen nengoen baina Txirrindulari sailean bakarrik eta ez zuzendaritzan.

### Zer egiten zenuen Txirrindulari sailean?

Nesken lasterketa, Aiztondoko lasterketan lagundu eta infantil eta alebinentzako ere antolatzen dugu. Herrian txirrindularitzarako afizioa handitzen ari dela ikusten dugu eta zerbait gehiago egiteko helburuarekin antolatuko dugu.

### XIX. Challenge-Zikloturistan sartu duzue zuen martxa.

Bai. Zirkuituaren barruan dago. Deban hasi zen eta komentatu ziguten Azpeitiko elkarte batek huts egingo zuela eta data bat libre zegoea.

### Eta bi martxa mota antolatuko dituzue, luzea eta motza. Zuek egin duzue ibilbidea?

Bai. Txirrinduan ibiltzen diren Urizar anaiak lehengusuak ditut eta beraiei eskatu genien ibilbidea



E. MAIZA

egiteko eta luzea eta motza prestatu zituzten.

### Zer dute nahiago txirrindulariek?

Nik uste dut gehienbat luzea. Jendeari ibilbide gogorrak gustatzen zaizkio. Quebrantahuesos egiteko deno asko dago apuntatuta eta hori prestatzeko, nik uste dut, ibilbide hau asko gustatuko zaiela. Ibilbide hau baino luzeagoak ba-

daude baina gogorra da eta oso polita. Batez ere Nafarroa aldekoa. **Antolatzaile bezala zein izan da zuen lana?**

Gipuzkoako Federazioarekin eta beste taldeekin batera bilera bat izan genuen eta antolatzeko maiatzak 16ko data eskaini ziguten. Azkeneko momentuan apuntatu ginen. Hau antolatzea bururatu eta

aste batera izan genuen lehenengo bilera. Ibilbidea aurkeztu, babesleak bilatu, gauza txiki asko dira: Jendea bilatu, nor e ramango duen furgoneta, autoa, motoak...

### Irrintzi Elkarteak kideak zaretze antolatze lanetan ari zaretenak?

Bai, Irrintzi Elkarteak 3-4 kide gaude gutxi gorabehera eta lehengusuen koardilako batzuk ere bai. Gauza gehienak, bilagunen artean egin ditugu eta ondoren laguntza eskatu izan diegu beste gauzetarako. Eta egunean bertan, 40 bat lagun inguru ibiliko gara antolatze lanetan.

### Lasterketa hauetan ez dago irabazlerik.

Ez dago irabazlerik baina beraien artean, kronometroari eman gabe ere, nahiko lehia izaten dute.

### Saririk izango da?

Izena ematen duten guztientzat kamiseta bat egingo da. Eta parte hartzaile guztien artean, txirrindularitzako material ezberdinak zozketatuko dira. Bukatzean esertzeko lekua izango dute eta pintxoak eta edatekoa izango dituzte. Olaederra kiroldegian duxatzeko aukera ere izango dute.

### Federatuek eta ez federatuek, eman dezakete izena.

Egunean bertan izena ematen duenak, 29 euro ordaindu beharko ditu. Aurretik izena ematen duen federatua 15 euro eta federatua ez denak 24 euro ordaindu beharko du. Guztiak seguru izango dute lasterketa egiteko.

**E Elkarrizketa**

**MIKEL ARTOLA** › Bertsolaria



AGURTZANE BELAUNZARAN

# «Tradizio handiko sariketa da, honek ematen dio garrantzia»

**Alegia** › 39. Osinalde Bertso Sariketa irabazi du, epaileen saria ez ezik publikoarena ere eskuratu du Alegiako bertsolari gazteak.

**AGURTZANE BELAUNZARAN**

Gaztea, bertsolaria eta Euskal Filologiako ikaslea da 39. Osinalde Bertso Sariketako irabazlea, Mikel Artola (Alegia, 1989). Alegiko bertso eskolan hasi eta Gasteizkoan jarraitu du bertsolaritza lantzen. Humorea ardatz hartuta epaileak eta publikoa bereganatu zituen alegiarrak. Lehen saria du eskuartean, bertsolaritza munduan sari sonatua.

**Osinalde Bertsolari Sariketaren irabazlea zara. Epaileak eta publikoak zure alde egin zuten, gustura al zaude egindako lanarekin?**

Oso gustura nago, pozik. Pasa den urtean ere publikoaren saria irabazi nuen eta orain sari nagusia eta publikoarena. Aurtengoan intensio bereziekin parte hartu dut. Gehixeago prestatu dut Sariketa, urtebete honetan jendaurrean aritzeko aukera izan du eta horrek konfiantza eman dit. Bestalde, tokia ere ezagutzen nuen eta emaitza ona izan da.

**Gabirian ospatzen den Sariketa honek pisu handia al du bertsolaritzan?**

Aurtengoa 39. aldian izan da, tradizio handiko Sariketa da eta honek ematen diogarrantzia. Komunikat-

bide ugari izaten da bertan, telebista eta irratia dela eta, Sariketa eza-guna bihurtzen da. Azken batean, Osinalde Saria jendearengana hurbiltzeko bidea da.

**Sariketan humorearen erabili ze-nuen gaiak jorratzean. Entzuleak etiketatzeko beldurrik ba al duzu?**

Humorea askotan erabiltzen dut bertso saioetan. Sariketan ere erabili nuen, baina ez da hau egin nahi dudana. Beste alderdi batzuk ere landu beharrekoak badituz. Entzuleak segituan definitzen dut kantatzen ari denaren estiloa. Etaguk ez dugunahi horrelako definitzio zehatz bat, denboran zehar ikusi behar da hori, saio batean ezin dugun gure burua definitu.

**Zeintzuk dira landu nahi dituzun alderdi horiek?**

Gaiak estilo askotan landu daitezke. Azken urte hauetan bertso eskolatan landu dugun gaia da hau eta buruhauste ugari ekarri dizkiguna; nola kantatu behar dugun, zein estilotan, doinuak... Batzuetan, seriotasun apur bat ere behar izaten da zenbait gairekin.

**Bertsokera definitzea alegia?**

Bertsokera definitzeko oraindik bertso saio asko behar ditut. Adi-

narekin eta esperientziarekin bertsolaria jantzi egiten da eta guk oraindik ahal duguna egiten dugu. Nik ez dut errima aldetik gaitasun handia; ez ditut asko landu. Esaten dudana gaitik bereiztu naiz, ez forma aldetik.

**Euskal filologiako ikaslea zara Gasteizen. Bertso saioan euskara irakaslearen paperean jarri zinen, Patxi Lopez ikasle zenuela.**

**«Gasteizen ikasi dut bertsoan, hona etorri ezkerotzik egin nahiz bertsolari»**

**«Saria irabazteak aukera ematen du jendearean aritzeko, batak bestea ekartzen du»**

Orduan esandakoak ere errepikatuko nizkioke benetan gertatuko balitz Lopez, euskara ikasteko gogo gutxi duela iruditzen baitzait.

**... eta zer da mila euroko fakturarena?**

Ainhua Mujikak hartu zuen Lopezen papera eta nik azken bertsoan hauxe erantzun: *mila euro da nere faktura diotsut betiko modun/eta ulertu ez badidazu 'dos mil euros' esan nahin nizan.*

**Alegiako bertso eskolan lehen-dabizi eta orain Gasteizen.**

Herriko bertso eskolan hasi nintzenean, lagun artean bildu eta bertso batzuk kantatzen genituen, baina ez nuen mailarik lortu. Gaur egun, irakasle lanetan nabil. Gasteizen berriz, hiru urte daramatzat eta bertako bertso eskolan ikasi dut bertsoan, hona etorri ezkerotzik hasi naiz bertsolari izaten eta hobetzen. Bertso eskolan Miren Amuriza eta Maialen Arzallus ere badabilta eta Gasteizen bada bertso mugimendutxo. Hala ere, meritu handia dute gasteiztarrek, askok euskara ikasi eta gainera as-terto bertsoan aritzeko gogoia baitute.

**Hemendik aurrera nola ikusten duzu zure burua bertsolaritza munduan?**

Hasi besterik ez naiz egin oraindik. Saria irabazteak aukera ematen du jendaurrean aritzeko, batak bestea ekartzen du. Oraindik estiloa definitu eta denborak esantuko dit zertan hobetu behar dudana. Oholtza gainera jgoteak ziurtasuna ematen dit, ikasteko aukera da. Saiotik saiora nire buruarekiko konfiantza irabazten ari naizela iruditzen zait. Beste Txapelketa bat ere badut orain eskuartean Plazatik Gaztetxera izenekoa, Elgoibarren dut hurrengo saioa.

**Gogoan al duzu zure lehen bertso saioa?**

Bai noski, 4 urte izango dira, Alegiko festetan, plazan abestu nuela.

**L Laburrak**

**Languarre inguruak garbitzeko auzolana**

**ALEGIA** › Maiatzaren 15ean Languarre inguruak txukuntzeko auzolan deialdia egin du Alegiako Udalak. Egin beharren artean, zaborrak bildu, haizeak botatako adarrak bildu, beheko iturriko bidea txukundu eta pintaketa lanak egitea izango da beste lanen artean. Bertan bildutakoei hamaikakoa emango zaie. Interesa dutenek larunbatean goizeko 09:00etan Languarreko komunen ondoko mahai borobilean elkartu beharko dute.

**Eskualdeko hiru erremontisten partidak**

**ERREMONTEA** › Uharteko erremonte jaialdian jokatu dute gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera Zeberio II.a elduaindarrak, Gaztelu leitzarrak eta Aizpurua II.a tolosarrak. Partida nagusian, Zeberio II.a eta Urrutiak, Ezkurra eta Lizasoren aurka jokatu dute. Bigarren partida nagusian Gaztelu I.ak eta Oinatzeak, Urrutia II.a eta Oleaga izango dituzte aurkari. Aizpurua II.ak eta Zulaikak aldez, Etxabe II.a eta Agirrezabala.

**T Telefonoak**

**Larrialdiak. ((112))**

<b>OSASUNA.</b>
<b>Alegialdea.</b> Osasun z.: 943 653212
<b>Anoeta-Alkiza-Hernialde.</b> Medikua: 943 65 23 39
<b>Asteasu.</b> Medikua: 943 692423
<b>Baliarrain.</b> Medikua: 943 889003
<b>Berastegi-Elduain.</b> Medikua: 943 683361
<b>Bidegoian.</b> Medikua: 943 681134
<b>Ibarraldea.</b> Osasun etxea: 943 672411
<b>Ikaztegieta.</b> Medikua: 943 653329
<b>Irura.</b> Osasun zentroa: 943 690720
<b>Leitza.</b> Osasun z.: 948 510800
<b>Orendain.</b> Medikua: 943 655595
<b>Orexa.</b> Medikua: 943 682228
<b>Tolosa.</b>
<b>Anbulatorioa, larriald:</b> 943 461111
<b>San Esteban:</b> 943 006800
<b>Gernikako arbola:</b> 943 006900
<b>Amarozko dispen:</b> 943 672637
<b>Asuncion klinika:</b> 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
<b>DYA:</b> 943 672536
<b>Gurutze Gorria:</b> 943 674888
<b>Villabona.</b> Anbulat.: 943 006970
<b>Zizurkil.</b> Aiztondo zerb: 943 693930
<b>GARRAIOAK.</b>
<b>Renfe:</b> 902 24 02 02
<b>Donostiako autobusa:</b> 943 361740
<b>Tolosalde bus:</b> 943 650621
<b>Leitzaran autob.:</b> 948 221015
<b>Taxia:</b> 943 670420
<b>Taxia (Leitza):</b> 608 873016
<b>BESTERIK.</b>
<b>Ertzaintza:</b> 943 538820
<b>Tolosa-Udaltzaingoa:</b> 943 675858
<b>Tolargi:</b> 943 650016
<b>Iurramendi egoitza:</b> 943 670325
<b>Tolosa gasa:</b> 943 675320
<b>Alkoholiko anonimoak:</b> 943 248474

# ELA eta LABek mobilizazioak egingo dituzte metalgintzan

**Ekonomia** » Bihar manifestazioa egingo dute Donostian, eta datozen asteetan batzarrak ere egingo dituzte enpresetan.

## ERREDAKZIOA

ELA eta LAB sindikatuek mobilizazioak iragarri dituzte metalgintzako sektorean Adegik patronalak Gipuzkoako Metaleko Hitzarmenean izan duen «jarrera probokatzailera salatze» eta «langileen baldintzak hobetuko dituen Metaleko Hitzarmen baten alde borrokatze».

Mobilizazioekin hasteko manifestazioa egingo dute bihar 11:30ean Donostiako Boulevardetik aterata. Honetaz gain, egun Metaleko Hitzarmenak bizi duen egoera «larriaz» hitz egingo dute Gipuzkoako enpresetan antolatuko dituzten batzarretan. Era berean, hilak 28an eta ekainaren 4an, 10ean eta 11n lanuzteak egingo dituzte, eta langileei parte hartzeko deialuzatu diete. Izan ere, «Adegik bere jarrera erabat aldatu ezean, borrokarako gertu gaudela jakin behar dute enpresaburuek. Langileok gure eskubideak, borrokatuz, defendatzeko prest gaude», argitu zuten ELAk eta LABek atzo eskai-



ELAk Iker Alustiza eta LABeko Olatz Amiano (erdian). A. AREIZAGA-GOIERRIKO HITZA

nitako prentsurrekoan. Tolosaldean asko dira metaleko enpresak, horien artean Voith, Guibe, Bost, Etxesa edo Lantier.

## Negoziarioa

Sindikatuak argitu zuten, «Gipuzkoako patronalak jendaurrean negoziaketa aldeko jarrera duela irudikatu arren, ondo baino hobeto daki orain arte mahairatu dituen proposamenekin ezinezkoa dela benetako negoziatio prozesu bat aurrera eramatea».

Adegik «Metaleko Hitzarmen berri bat» aldarrikatzen duela ar-

gitu zuten, «enpresaburuek nahiko luketena», hau da, «lanaldia igotzea, soldadak izoztea, antzinatea desagertzea, munduko malgutasun guztia lortzea lan egutegiari antolatze orduan... aurreikusten duena».

«Lan eskubideen murrizketa basati» honen aurrean, metalgintzako langileek «erantzun sindikal gogor eta bateratua emango» diete argitu zuten, «Gipuzkoako ugazaben proposamena, ikuspuntu sindikal batetik, erabat onartezina delako».

Bestalde, «bitxia da ikustea nola

Adegik gauza batzuetarako negoziatioak egiteko, batik bat- Europako herrialde garatuen -Alemania, Frantzia, Ipar Europa...- ispluan begiratzen duen, eta nola, aldez, langileon lan eta bizi baldintzetan ari garenean Asia den zerua», esan zuten.

Azken urte eta erdian metalgintzako langileek krisi ekonomikoa ere pairatzen ari direla nabarmendu zuten ELAk eta LABek, «mila-lankide kaleratuak izan gara eta beste hainbat Enplegua Arautzeko Espediente bizi gara».

Hau guztia kontutan hartuta Gipuzkoako metalgintzak «arazo larri bat» duela nabarmendu zuten sindikatuek.

«Adegik, ugazaben elkarte, errealitateak at dago. Izan ere, azken urtean ugazabek milaka langile-lan zama jaitsi denaren aitzakiaz-kalera dituzten unean, ehunka enpresa Enplegua Arautzeko Espedienteak -lan zama jaitsi denaren aitzakiaz ere- eskatu dituzten unean, ezin dira ulertu lanaldia 58 ordutan igotzea bezalako aldarrikapen eroak», esan zuten.

# «Koadrilak beren lokal edo tabernetatik ateratzeko balio du» Txapin Festak

## ERREDAKZIOA

Etzi, hilak 15, izango da Txapin Festa. Herriko gazteen ekimenez «eremu desberdinetan ibiltzen diren gazteen elkargune bat» sortzea zen helburua, eta ibilian-ibilian lortu dute hirugarren edizioa ere egitea. Aurreko urteetan bezala egun osoko egitaraua prestatu dute eta bazkaria ere izango da. Abastosen izango da eta tiketak Raku, Meskal, Denak eta Orbela tabernetan erosi daitezke 12 euroren truke. Trukean kamisetak banatuko dituzte. Berrikuntza moduan III. Txapin Festangarai batean San Joanetan egiten zen baltsen jaitziera egingo dute Ori ibaian.

Jai eguna indartzen joan da urtetik urtera eta aurtengo leloak dioen moduan, «pausoz pausoz txapinak urratuz» herriko gazteek Tolosako kaleak beren «izaeraren erakusleho» izango dira «gazteen arazo eta aldarririk» betez.

Beñat da larunbatean Txapin Festan parte hartuko duen gazteetako bat. Urtero hartu du parte jai egunean eta datozen edizioetan ere parte hartzea espero duela dio, «giro polita» izaten baita. Beraren-



lazko Txapin festako 'familia' argazkia. HITZA

tzako «jende berria ezagutzeko» aukera ematen du jaiak eta baita «koadrila bakoitza bere lokal edo tabernetatik ateratzeko» ere.

Aurten ere, aurreko edizioetan bezala, eguna lokalez lokal egiten

den poteoarekin hasiko dute, eta horixe da Beñati gehien gustatzen zaiona: «Lokalez lokaleko poteoan jende berriarekin elkartzea gustatzen zait gehien. Bazkaria ere oso ondo egoten da eta ondoren izaten diren jokoek ere asko giroten dute eguna».

Anek ere erosi du jada, bazkari-rako txartela eta Txapin Festa murgilduko da etzi. «Iaz hartu nuen parte lehen aldiz, eta oso ondo pasa genuenez berriz ateratzeko zalantzarik ez dugu izan koadrilan». Aneri ere poteoan sortzen den giroa gustatzen zaio, «giro ona izan genuen iaz txarangarekin eta trikitalariek». Aneri «gazte egun bat ospatzea oso ondo» iruditzen zaio, eta jaiak jende berria ezagutzeko aukera ematen diola dio.

Bai Beñatek eta baita Anek ere baltsen jaitziera hartuko dute parte, oraindik etxeko lanak guztiz

bukatuta ez badituzte ere. «Ateratzeko asmoa dugu, hala ere, oraindik ez gara baltsa egiten hasi, baina badugu gure ideia: kamioi gurpil-kamarak erabili nahi ditugu eta gero nolabait dekoratu», dio Beñatek. Ane eta bere lagunek ere ez dute baltsa egiteko tarterik hartu oraindik: «Ikasketengatik ez dugu denbora askorik izan eta Inauterietan ateratu genuen txalupa puzgarria aterako dugu. Zerbait gehitzeko asmoa dugu, baina oraindik ez dugu ideia garbirik».

## » EGITARAUA

- **10:00etan.** Poteoa Berazubiko lokaletatik hasita Bonberenea txarangaren eta Mulanboren laguntzarekin.
- **12:00etan.** Baltsa jaitziera Igarondo paretik Zerkausiraino.
- **14:00etan.** Bazkaria Abastosen.
- **Bazkalostean.** Bertsolariak.
- **Arratsaldean.** Jokoak plaza Berrian.
- **21:30ean.** Meskal tabernan Humus taldearen kontzertua.
- **00:00etan.** Dj Puntzaka Kikara tabernan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Hitzaldiak, dantza saioak, musika eta erakusketak Kultur Astearen baitan

**Lizartza** » Datorren astelehenerik igandera bitartean hainbat ekitaldi egingo dituzte; hitzaldi batekin hasiko dira.

## ERREDAKZIOA

Maiatza Kultur Asteen hilabetea izaten da, eta hemendik gutxira Lizartzaren txanda izango da. Hilaren 17an, hau da, datorren ostiralean hasiko da eta aste guztian zehar izango dira ekitaldiak.

Hitzaldiak, dantza emanaldiak, herri kirolak, kantua... izango dira protagonista zazpi egunetan. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hizketaldiak betiko lekuan izango dira. Bestalde, helduen bazkarira joateko, interesatuek tabernetako zerrendetan eman behar dute izena.

Ekitaldiez gain, erakusketa ere egongo da ikusgai aste guztian zehar, arratsaldeetan. Bertan, Antton Etxarriren eta Paulo Donezaren margolanak ezagutu ahal izango dira.

## Floren Aoizen hitzaldia, hasiera

Floren Aoiz Monreal tafallarra, ezker abertzaleko politikaria, idazlea eta iruzkingilearen hitzaldia izango da Kultur Asteko lehen ekitaldia. Politikan gazte sartuta, hainbat liburu idatzi ditu, Nafarroako historiari eta euskal gatazkari buruz. *Garan* zutabegilea da, eta *Euskadi Irratian* iruzkingilea.



Aurten ere, laz bezala herri kirol jaialdia izango da; oraingoan, herriko koadrilak elkarren aurka ariko dira lehian. I.L.

## » KULTUR ASTEKO EGITARAUA

### Maiatzak 17, astelehena

■ **20:00.** Hitzaldia: *Independentzia, iragana, oraina edo geroa*. Floren Aoiz izango da hizlaria.

### Maiatzak 18, asteartea

■ **20:00.** Errealeko jokalariekin hitzaldia. Aitor Elduairen esataria ariko da aurkezle lanetan.

### Maiatzak 19, asteazkena

■ **16:30.** Takolo pailazoa eta ondoren txokolatada.  
■ **20:00.** Hitzaldia. Bertan, mintzagai izango den gaia, dieta gar-

ria izango da, eta Inaxio Balerdi ariko da hizlari lanetan.

### Maiatzak 20, osteguna

■ **20:00.** Film emanaldia. Josu Bereziartuaren *Familiarekin Himalaia-ira* lana proiektatuko dute.

### Maiatzak 21, ostirala

■ **20:00.** Kantu poteoa.  
■ **22:30.** Kantuki musika taldearen emanaldia.

### Maiatzak 22, larunbata

■ **12:00.** Dantzari Txiki Eguna. Iba-

rra, Villabona, Hernialde, Tolosa, Anoeta, Alegia eta Lizartzako dantzariak hartuko dute parte.

■ **18:00.** Herri kirolak, herriko koadrilaren artean.

### Maiatzak 22, larunbata

■ **11:00.** Hamaiketako elkartearen.

■ **12:30.** Pilota partidak.

■ **14:30.** Helduen bazkaria, dohai-nik.

■ **18:30.** Antzerki emanaldia Higa antzerki taldearen eskutik, *Ene poltsa eta biok* lana taularatuko dute-larik.

## Bihar jokatuko da Poltsikoko Antzerki Lehiaketako lehen finalerdia

**Aduna** » Lau talde ariko dira lehian bihar, eta horietatik bi sailkatuko dira finalerako; hurrengoa, datorren astean.

## ERREDAKZIOA

Asvineneak antolatutako Poltsikoko Antzerki Lehiaketa finalerdietara iritsi da jada. Bihar iluntzean, jokatuko da finalurrekoetako lehendabiziko saioa. Aurrekoetan bezala, 22:30ean hasiko da ikuskizuna, eta Asvineneak, Adunan duen egoitzan izango da.

Le mamelon Fantastique taldea *Bernardo* lanarekin, Berastegiko antzerki taldea *Txikiteoan*-ekin, Karmakros *La vida y tal*-ekin eta Xexenak *Match de improvisacion de bolsillo* antzerkiarekin ariko dira lehian, finalerako txartela lortzeko asmoz. Hauetatik, bi sailkatuko dira, alde batetik, epai-mahaiak aukeratzeko duena, eta bestetik, bertaratzeko diren ikusleek saritzen dutena. Gauza bera gertatuko da hurrengo jaialdian. Eta azkenik, lau talde izango dira aurrez aurre, finalean. Bestalde, talde gonbidatu gisa, sabel dantzariaren emanaldia ere izango da biharkoan. Lau kanporaketa jokatuko ostean, zortzi talde sailkatuko dira fase honetarako. Aipatu lehendabiziko finalurreko bihar jokatuko da, eta bigarren, hilaren 21ean. Final handia berriz, aste bat beranduago izango da, hilaren 28an hain zuzen ere.



## Bizi Nahi elkartekoak erromerian

**IBARRA** » Bizi Nahi jubilatuen elkartekoak egun ederra igaro zuten atzo Izaskun auzoan. Goizean, batzuk oinez, eta beste batzuk autobusez igo ziren Ibarra auzora. Ohiturari jarraituz, hildako elkarteko kideen omenez ospatutako meza entzun ostean, bertako ja-

tetxean ederki bazkaldu zuten denek. 110 lagun inguru elkartu ziren mahai inguruan, eta bapoz bazkaldu ostean, gorputza astintzeko aprobetxatu zuten askok. Izan ere, beti bezala, dantzarako erritmoekin eman zieten amaiera jaiari. ESTI EZEIZA

## Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

**Gozatu berria**



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzue aukeran.

HARRERAKO ETORRAKIO  
943-30 43 45 • [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)



### Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIren harpidedunen artean. Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Zinema

- **Tolosa.** Javier Reboloren *La mujer sin piano* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.
- **Lizartza.** 19:00etan *Kiriku eta basapiztiak* filma ikusgai izango da kulturgunean, Eskolako XXI. Astearen barruan.

### Dokumentala

- **Tolosa.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako *Maiatza Borrokan* jardunaldien baitan *Thaidina, musika desertu batean* izeneko dokumentala Kultur Etxean 19:30ean. Beatriz Maria zuzendaria ere bertan izango da.

### Tailerra

- **Amezketeta.** Hizkuntza Eskubideen Tailerra UEMArean eskutik gela polibalentean 20:30ean, Kultur Astearen baitan.

### Batzarra

- **Amezketeta.** 2010an kultur eragileek jasoko dituzten diru-laguntzen inguruko erabakiak hartuko ditu Udalak 20:00etako udal batzarraren. *Egia nahi dugu* izenburupean, Jon Anzari buruzko mozio bat ere aurkeztuko dute.

### Deialdia

- **Tolosa.** Larunbateko Txapin Festako bazkarirako tiketak (12 euro) salgai Orbela, Denak, Meskal eta Raku tabernetan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Moraut, R. Zabalzarreta, 1.943 67 36 39.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

### » TELEBISTA

- 28 Kanala**  
**08:30.** Estetika. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafe t'erdia. **10:30.** On ein!  
**11:00.** Sakonduz. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Ikusmira.  
**12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe t'erdia. **14:30.** On ein!  
**15:00.** Sakonduz. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Ikusmira. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** Euskal Herria Lau Haizetara. **19:00.** Erloklip. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskukin.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



## Naturaz gozatzeko txangoa

**VILLABONA-ZIZURKIL** ● Pasa den astean Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako LH 2. mailako ikasleek «naturaren inguruko gauzak lantzeko, aztertzeko eta ikasteko» txangoa izan zuten Txanela Proiektuaren baitan. «Lehenik eta behin Arratzaina ligo ginen, hortik Otsabiko parkera, ondoren Amasara eta azkenik, berriz ere Ikastolara», argitu dute Ikastolako arduradunek. «Bidean, landare asko eta ezberdinak ikusi genituen:

gorostia, pinua, haritza, palmondoa, urritza, arbustua... Eta nola ez, animaliak ere ikusi genituen: oiloak, oilarra, zaldia, txakurra, katua, tximeletak, sugandila, txoriak... Asko ikasteaz gain, primeran pasa genuen», gaineratu dute. Era berean, LH 1. mailako ikasleak Irungo Oiaso museora joan ziren. «Goizean museoa bisitatu zuten, bertan, erromatarren garai-ko aztarna ugari ikusi zituzten», zehatu dute. HITZA

## A Agurrak



**Zorionak!**  
**Lexuri Aizpurua De Paz**  
(Asteasu).

Atzo bost urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

### Eraman soinean...

Helduen elastikoak **15 €**

Neska ZURIA BELTZA  
Mutilak BERDEA  
MARRONIA  
LABANIA BERDEA

NEURRIAK:  
Neska: S, M, L, XL, XXL  
Mutilak: S, M, L, XL, XXL  
Haurrak: 3-4, 5-6, 7-8, 9-11

Haurren elastikoak **12 €**  
mantangorri

## Gozatu udaberriaz

Noiz eta nola egin eskaria?

**Maiatzaren 28ra** arte  
aukera izango duzu:

1. TELEFONUZ: 943-30 43 45
2. WEBGUNEAN: www.berria.info
3. POSTAZ: harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**